

PRENTSA OHARRA


GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK 962.358 BISITARI IZAN ZITUEN 2011. URTEAN

laz 2010. urtean baino %1 gehiago izan zen bisitarien kopurua


Guggenheim Bilbao Museoak 962.358 bisitari erakarri zituen 2011n, 2010ean baino %1 gehiago; gaintu egin da, hortaz, aurrez ikusitako bisitarien kopurua mundu osoko egoera ekonomiko zail honetan, eta, hargatik, emaitza oso onen aurrean gaudela jo dezakegu.

Bisitarien jatorriari dagokienez, azpimarratzekoa da 2011n puntu batean baino gehiago gora egin zuela EAEko bisitarien kopuruak; batez ere, *Kaosa eta klasizismoa* eta *Urrezko Aroa: Städel Museum-en Holandako eta Flandeseko pintura* erakusketek erakarri zituzten. Atzerriko bisitariak %62 izan ziren, aurreko urteetako kopuru bertsua beraz; gehienak Frantziakoak, Erresuma Batukoak, Alemaniakoak, AEBkoak eta Italiakoak izan ziren.

Bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera



Atzerriko bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera



Bestalde, www.guggenheim-bilbao.es webgunean 1.356.026 bisitaldi izan ziren 2011n, 2010ean baino %24 inguru gehiago; eta 5.011.319 orrialde begiratu ziren, 2010ean baino %4,19 gehiago.

Hezkuntza-egitarauetarako dagokienez —Guggenheim Bilbao Museoa askotariko parte-hartzaileentzat antolatzen ditu, hala nola, irakasleentzat, haurrentzat, familientzat, gazteentzat, Lagunenentzat, baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat...—, 640.309 pertsonak esku hartu zuen 2011ko jardueraren batean, alegia, 2010ean baino kopuru zertxobait txikiagoa. 2011n Museoa teknologia-aplikazio berritzaile bat abian jarri zuen, sareko baliabideak indartzearen: *Abentura bat Museoan* bisitaldi birtuala, harrentzat eta familientzat egokia. Horrez gain, DIDAKTIKA egitarauak garrantzi handiagoa hartu du: erakusketen osagarri diren gune didaktikoak antolatzeaz gain, 103B aretoa didaktika gune bihurtu da. Bertan, Museotik irten baino lehen, bi ardatz kronologiko daude, arkitekturaren historiaren eta Solomon R. Guggenheim Museoaren historiaren ingurukoak, hurrenez hurren; era berean, areto horretan bertan, *Sketches of Frank Gehry* dokumentala dago.

Kide Korporatiboen Programari dagokionez, egun 123 enpresa eta erakunde daude horretan; oro har, balorazio ona da, gaur egungo egoera ekonomiko okerra bada ere. Banakako Kideen programan urte amaieran 16.239 Lagun ziren; kopuru horrek aditzera ematen du hurbilekoek Museoa babesten dutela.

Amaitzeko, Guggenheim Bilbao Museoaren jardunak 2011. urtean izandako eragin ekonomikoa aztertu da. Ikerketa-eredua, 1998koa, berriro egin da, eta, horrenbestez, orain “emaitza hirukoitza” edo “hiru eremutan eragina” aztertu da; termino hori enpresa jasagarriari esateko erabiltzen da eta aditzera ematen du enpresaren jarduna hiru eremutan islatzen dela: ekonomia, ingurumena eta gizartearen. Ekonomia arloan honako eragina izan du Museoaren jardunak:

- 311 milioi euroko guztizko gastu zuzena egin zen Euskadin 2011n Museoaren jardunaren ondorioz.
- 274,3 milioi eurotan aberastu zen BPGd 2011n Museoaren jardunaren ondorioz.
- 42,2 milioi euroko sarrera gehigarriak izan zituzten Euskal Ogasun Publikoek jarduera ekonomikoa horren eraginez.
- 5.885 lanpostu gordetzen lagundu zuen jarduera ekonomikoa horrek.

Ingurumenari dagokionez, ikerketak honakoa nabarmendu du:

- Energiaren erabilera optimizatu zen eta uraren, argindarraren eta gasaren kontsumoa murriztu honako portzentajeetan, hurrenez hurren: %14,7; %6,75; eta 9%.
- Hondakinak gaika bildu eta gutxitu ziren: 2011n 500 ontzi erabilitako paper eta kartoi, 270 ontzi plastiko eta 1.000 kg frijitze-olio balioztatu ziren.

Gizartearen, artearen eta kulturaren eremuetan azpimarratzekoak dira honako eraginak:

- Artearen herritarren artean ezagutaraztea: Ireki zenetik, 117 erakusketa izan dira museoan; 124 artelan daude museoaren bilduman; eta EAEko 130.000 pertsonak (biztanleriaren %6) bisitatzen dute urtero museoak.
- Arte heziketan laguntzea: 2011n 600.000 pertsonak baino gehiagok esku hartu zuten hezkuntza jardueretan; horietatik, 30.000 bat ikasle eta baztertzeko arriskuan dauden taldeetako 1.300 pertsonak.

Azkenik, Europako kultur erakundearen artean, Guggenheim Bilbao Museoa aurtengo buru da autofinantzazioaren arloan; %67 ingurukoa izan zen 2011n, hots, gastatutako 3 eurotik 2 Museoak berak sortu zituen.

Informazio gehiagorako

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Zuzendariordetza

Tel.: +34 94 4359008

e-maila: media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es